

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ESKATZEN DUTENEK IRUNGO UDALAREN/IRUNVIREN DATU-BASEAN IZENA EMATEKO BALDINTZAK

Eskatutako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eskaerak soilik onartuko dira.

Hona hemen baldintza horiek:

1) ETXEBIZITZA BEHARRA:

- ❑ Bizikidetz-unitateko kideetako inork ere ez du izango etxebizitzarik jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubide edo usufrukturik, eskaera hori egin aurreko bi urteetan. Legeak aurreikusten dituen salbuespenak salbu.
- ❑ Babes ofizialeko edo sustapen publiko edo pribatuko beste etxebizitza baten esleipendun ez izatea eskaera egin aurreko bi urteetan.

2) EGOITZA:

- ❑ Gutxienez azken 5 urteetan Irunen erroldatuak egon behar dute.
- ❑ Azken 20 urteetan gutxienez 10 Irunen erroldatuta egon izatea, baina ez da beharrezkoa eskaera egiten den unean Irungo Biztanleen Udal Erroldan erroldatuta egotea.
- ❑ Era berean, ez zaie eskatuko gutxieneko erroldatzearen betekizuna genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduan, genero-indarkeriaren emakume biktimentzako etxebizitzaren gaian ekintza positiboa burutzeko neurriei buruzkoan hala eskatzen baita.

3) DIRU - SARRERAK:

EROSKETA

- **BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK:**
 - ❑ Gizarte Erregimena: 9.000 € - 25.000 €
 - ❑ Erregimen Orokorra: 9.000 € - 39.000 €
- **UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK:**
 - ❑ Gizarte Erregimena: 25.000 € - 50.700 €
 - ❑ Erregimen Orokorra: 25.000 € - 58.500 €

ALOKAIRUA

- **BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK:**
 - ❑ Gizarte Erregimena: 3.000 € - 25.000 €
 - ❑ Erregimen Orokorra: 3.000 € - 39.000 €
- **UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK:**
 - ❑ Gizarte Erregimena: 25.000 € - 50.700 €
 - ❑ Erregimen Orokorra: 25.000 € - 58.500 €

OHARRA: Mugikortasun gutxituko ez-gaituen eta adimen-urrikoen kasuan, alokairu-erregimenean babes ofizialeko etxebizitzaren aukera izateko, ez da eskatuko gutxieneko diru-sarrerarik, eta jabetza erregimenean edo azalera-eskubidekoan, nahikoa izango da 3.000 euroko diru-sarrera minimoa akreditatzea.

Era berean, ez zaie gutxieneko diru-sarreraren baldintza betetzerik eskatuko genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei.